

PUNTU ETA KAKORRATZA

Jarduera

Jazteko ala apaintzeko jantziak egin puntu eta kakorraz-lan teknikak erabiliz

Deskribapena

Trikotatzea jarduera sortzaile eta soziala da, aisialdi aktiboa bultzatzen duena. Ikastaro honetan bi orratzekin ala kakorrazekin aritzeko oinarrizko teknikak erakutsiko dira.

Puntuak bota eta itxi

Ikurrak, patrioetan agertzen diren laburdurak, Krotxet, eraztun magikoa...

Puntuak: zuzena, okerra, bobo, elastikoa, arroza, kate-itxurako, erdipuntu, bareta...

Helburuak

- Ehuntzen ikasteko oinarrizko teknikak ikastea
- Herritarrek parte hartzeko guneak sortzea.
- Hiritarren kulturmina asetzea.

Programa

Hiruhilekoa

- Puntu eta kakorrazta egiteko beharrezkoak diren tresnak eta materialak ezagutu: orratzak eta hariak
- Puntu eta kakorrazta: oinarrizko puntuak
- Puntuak gehitzen eta gutxitzen ikasi
- Kakorrazaz diru zorroak egin
- Puntuz txanoa egin
- Puntuak nahasten ikasi
- Pieza hautatutako patrioia jarraituz egin: patrioia irakurtzen ikasi
- Patrioia aldatu

*Taldeetan ikaskuntza-maila desberdinak daudela eta pertsona batzuek teknika bakarra (edo puntu edo kakorrazta) ikasi nahiago dutela kontuan izanik, jarduerak eta pausuak ikasleen eskaera eta beharren arabera alda daitezke.

Irakaslea

- Prokulturako irakasle taldea

Nori zuzendua

Gazteak (16-30)

Ikasleak eraman beharreko materiala

Guraizeak, hariak, artileak, orratzak, kakorratzak